

J. B. ELIZANBURUK ERABILI ZITUEN DOINUAK

Sara, 1991-XII-21

Jose Antonio Arana Martija

Jean Batiste Elizanburu Irazabal saratarra XIX. mendeko idazle erromantikoa dugu dudarik gabe. Baina hasiera-hasieratik esan dezagun, euskal literaturan *Piarres Adame* hitz lauzko elaberri autobiografikoa eman bazigun ere, kantuengatik dela ezagunagoa. Eta hau da, hain zuzen, nik gaurkoan aztertu behar dudan Elizanbururen emaitza. Kantuak aipatu ditut, eta honekin argi gera bedi, Iparragirre bezala, kantaria izan zela eta ez bertsolaria, nahiz eta bere bost edo sei poemetan bertsolarien metrika eta doinuak erabili. Ez zuen bat bateko bertsorik jarri, ez bertsolarien arteko lehietan parterik hartu. Idatziak izan ziren utzi zizkigun kantuak, D'Abbadiek Urruñan (1860, 1861, 1862) eta Saran (1866, 1871, 1885) antolatutako Euskal Jaietan aurkeztuak eta sarituak. Badu Elizanburuk Iparragirrerekin beste parekidetasun bat, hots, bien kantuak idatziak eta sarritan argitaratuak izan zirenez, egile ezagutu batenak direla, nahiz eta herrian ahoz aho korritu dutenez, herritarrak izatera heldu. Garai hartako hainbat herri kantu ditugu, egile ezezagunenak; baina urretxuar eta saratarrarenak egile ezagunenak ditugu. Dena den ez zen plaza gizon izan Iparragirre bezala.

Baina Elizanburu bezalako idazle batek herrian ospe handia lortzen duenean berari gatxezkio, bereak ez direnak ere berari atxekiz. Azterketa hau egiteko erabili ditudan paper, kantutegi eta liburuetan, Elizanbururenak direlakoan hogeita zortzi kantu ematen zaizkigu. Eta egia esan, hamairu bakarrik dira saratar kantari honenak. Baionako Euskal Erakustokian gordetzen den kaier batetan, Elizanburuk berak idatzia, hamabost kantu agertzen dira, eta bi ez dira bereak, bata, *Xuriko*, Zaldubirena baita, eta bestea, *Eskualduna*, Joannategik eta Louis Ithurbidek egina. Antonio Maria Labaien jaunak *Egan* aldizkarian (1956) eta gero, euskaltzaina izendatu ondoren Auñamendi argitaldariaren bilduman 124 zenbakiarekin eman zigun *Elizanburu. Bere bizitza eta lanak. Su vida y obras* liburuan (1978) hogeita hiru kantu ematen dizkigu, hauetatik zazpi doinu eta guzti; Elizanbururenak diren hamairu kantuak ematen badizkigu ere, bereak ez diren beste hamabost atxekitzen dizkio. Paul Etxemendi eta Pierre Lafittek argitaratutako *Kantuz* bilduman (1946) Elizanbururenak

direlakoan hamar kantu ematen dira, tartean nik zalantzan jartzen dudan *Solferinoko itsua* eta beste bi Harlouchi-ren izenean. Dakigunez “Harlouch” (eta ez Harlouchi) Elizanburuk erabili zuen izenordea da. Bilduma honetan doinuak ere ematen dira, baina *Agur herriari* (Urrundik) kantuan ez digute bildumatzailerik Elizanburuk erabili zuen doinua ematen, Gabriel Lertxundik zortziko erritmoan (5/8) egindako transkripzioa baizik. Donostiako Apaizgaitegiak kaleratu zuen *Boga Boga* bilduman (1959) Elizanbururen lau kantu ematen dira, entzutetsuenak egia esan. Azkenez, doinurik ez dakarren *Kantu, Kanta, Kanthore* bilduman (Baiona, 1967) Elizanbururen zortzi kantu ematen zaizkigu (bi Harlouchen izenean). Bilduma honetan Salaberri agertzen da *Solferinoko itsua*-ren egile gisa. Egunotan agertu da beste dokumentu interesgarri bat, hots, *Ikusten duzu goizean. J-B. Elizanburu* diskoa, Iparraldeko 28 kantarik grabatua eta Euskal Kultur Erakundeak eta Elkar etxeak kaleratua. Elizanbururen hamar kantu entzuten dira bertan.

Hauek ziren ikerketa lanean hasi nintzenean eskuratu nituen dokumentuak. Literaturari edo testuei dagokionetik banituen beste iturri batzu ere, baina musika denez nire gaia, ez zidaten behar besteko laguntzarik eskaintzen. Aurretik ihardunaldi hauetan izan diren hizlariak, gehien bat Jean Haritschelhar-ek eta Xabier Elosegik, argibide ugari eman didate nituen zalantzak eta hutsuneak argitzeko eta betetzeko. Beraz, nolabait osotu eta osatu ahal izan dut hitzaldia argitaratzeko prestatu dudanean.

Elizanbururen biografia zehatza eta dokumentatua eman digu gaur goizean Xabier Elosegi jaunak. Haren kantuen kronologia egiteko interesgarria iruditzen zait biografiako data hauek finkatzea:

- 1828 Abuztuaren 14ean jaio zen Jean Batiste Saran.
- 1835 Urriaren 4ean hil zen ama Joana eta azaroaren leian Michel aita. Beraz, zazpi urte zituelarik geratu zen umezurtz gure kantaria.
- 1843 Larresoroko seminaria doa 15 urteko gaztea.
- 1845 Iparragirre Larresoron kantari agertzen da. Badu Adema eta Elizanbururengan eragina.
- 1847 Adema Baionako seminaria doa eta Elizanburu etxera.
- 1849 Infanteriako soldadutzara doa Elizanburu, bi urterako engaiamendua sinatuz.
- 1851 Vaucluse departamentura doa, Frantziako ekialdera “Campagne interieur” baten parte hartzera eta “sargent” kargua lortzen du.
- 1853/57 Afrikara doa eta “adjutant” kargua ematen diote.
- 1859 Clermont-Ferrand-en. Lioteniant-ordea izendatua.
- 1860 Urruñan saritua: *Gazte hiltzera doana*. Savoién dago.
- 1861 Ofiziala izendatua “Premier Régiment de Grenadiers de la Garde Imperiale” taldean, non jarraituko duen 1871 arte.

- 1862 Urruñan saritua: *Apexa eta lorea*. Aipamenak lortzen ditu baita *Nere etxea* eta *Agur herriari* poemekin.
- 1864 Saran saritua: *Solferinoko itsua* Elizanbururena ez omen dena.
- 1866 Saran saritua: *Maria*. Teniente izendatua.
- 1867 Kapitaina izendatua.
- 1870 Alemaniarekin gerra: Paris, Nancy, Metz. Urriaren 29an Soest-en (Westfalia) atxilotua 1871-4-6 arte.
- 1871 Saran saritua: *Txori berriketaria* (1869an idatzia).
- 1872 125. Erregimenduko Kapitaina.
- 1872/1874 Vichy-ko uretara.
- 1874 34. Erregimenduan, Baionan.
Ekainaren 10ean ezkondu Urruñako F. Eiheraburu anderea-
rekin.
- 1876 Eri zegoelako 6 hilabeteko baja. Azken lau urteetan maiz eri.
- 1877 Leon Joseph semea jaio.
- 1879 Donostian saritua: *Lehen eta orai*. Erretreta. Sarara doa.
- 1880 “Capitaine Adjuvant Major” ohorezko izendapena.
Manterolaren EE aldizkariak *Aingeru bati* argitaratzen du.
- 1882 EE aldizkariak argitaratzen ditu *Eskuara eta eskualdunak (Ar-
basoak)* eta *Zapataina*. “Almanakak” argitaratzen du *Lau
andren besta*.
- 1885 Saran saritua: *Maite zaitut*.
- 1891 “Almanakak” argitaratzen du *Biba Frantzia*.
Saran hil da Elizanburu.

Biografia labur honetan txertatu ditut Jean Batiste Elizanbururen hamairu kantuak. Ez ditut sartu, jakina, Labaien en iritziz Jean Batistere-
nak diren *Emazte edalea* eta *Dantzaria*, Leon Elizanburu anaiarenak dira
eta. Beste batzurentzat Jean Batistere-nak diren *Bozkario haundi bat* eta
Kuraiez lanean Leon anaiarenak dira. Lauetan agertzen da Elizanbururen
izena, baina brigadier zenarena, beraz, Leonena. Atxekimendu hau frogat-
zeko ikus dezagun azken honen kronologia:

- 1816 Ortzaizen jaio.
- 1834 Aduanetako lanpostuan sartua, 1811an aita sartu zen bezala.
- 1838 Brigadier-ordea izendatua. Jean Batistek 10 urte zituen.
- 1841 Brigadier izendatua.
- 1855 Urruñan saritua: *Emazte edalea*.
- 1856 Urruñan saritua: *Bozkario haundi bat* Bonaparteri kantatua.
- 1858 Urruñan saritua: *Kuraiez lanean*.
- 1859 Brigadier Akotzen, Donibane Lohizuneko auzoan.
- 1860 Urruñan saritua: *Dantzaria*. Leon Elizanburuk irabazi zuen
azken saria dugu hau. Urte eta toki berean irabazi zuen Jean
Batistek bere lehen saria, ikusi dugunez.
- 1861 Leon Elizanburu hil da Uztaritzen.

Beste egile batzuren kantuak ere atxekitzen dizkio Labaienek Jean Batiste Elizabururi, hala nola, Joannes Berjes-enak, haren izenordea dela esanez. Baina Berjes bizi izan zen jaun bat dugu Elosegik frogatzen duenez. "Saratarra" izenordea erabili arren, ez zen Saran jaio, nahiz eta bertan bizi Agerre baserrian maizter zelarik Urruñako Catherine Subelzurerekin ezkondu ondoren. Saran hil zen Berjes olerkari hau 1885ean. Hiru sari irabazi zituen Sarako Euskal Jaietan: *Artzaingoa* (1865), *Laboraria* (1866) eta *Oraiko neska batzu* (1867). Ez dira ba Jean Batiste Elizanbururenak kantu hauek.

"Harlouch" izenordearekin bi sari irabazi zituela J. B. Elizanburuk eta "Darroupe Harluz" batek Donapaleun (Done Palia dio bertso papearak) 1877an *Txori kaiolatik ihes goan dena* kantuarekin irabazi zuena Elizanbururi dagokiola dio Labaienek. Baina dirudienez egile haren kantu hau Ameriketatik igorria zela diosku Elosegik.

Hau guztia ikusi ondoren azter ditzagun Jean Batiste Elizanburuk eman zizkigun kantuak. Hiru sailetan banatuko ditut: I. Ademarekin egindakoak, II. Bereak, eta III. Zalantzazkoak.

I. ADEMAREKIN EGINDAKOAK

Esan dugunez, 1843tik 1847ra arte, ikaskideak izan ziren Larresoroko seminarioan Gratien Adema Zaldubi eta gure Jean Batiste Elizanburu. Adema berak dioskunez Iparragirre ezagutu izan omen zuten seminario hortan 1845/46 inguruan. Honen eraginez edo idatziko zuten bien artean *Zumalakarregiren kantia*. Gaztaroko itxura duenez, garai hartakoa izan daiteke bion arteko *Infirmerian* edo *Eritegian*. Kantu hauen doinuak ez ditut nik ezagutzen, baina bai bi ikaskidek seminarioan izandako goseak kantatzen dituen *Betiri Sants* kantuarena. Testuaren originala Bonaparteren paperetan dago Gipuzkoak Foru Diputazioaren artxiboan eta hara non aurkitu dudana doinua. Euskaltzaindiaren artxiboan dago XIX. mendeko eskuskribu bat *Chansons Basques* tituluarekin, 155 kantuen doinuak ematen dituena. Horietarik 103. zenbakia daramana kantu honi dagokiona da eta hala du titulua: *Betiri Sants. Francian zer den gertatu*. Testua *RIEV* aldizkariak eman zigun (1909, III, 227-229).

II. ELIZANBURUK ERABILITAKOAK

Ez dira asko, esan dugunez, Elizanburuk utzi zizkigun poematxoak eta bakoitza kantatzeko erabili zituen doinuak: hamairu guztira. Bi sail nagusi egin ditzakegu doinuekin: bertsolarien metrika jarraituz bertsolaritzaren altxorretik hartu zituenak, zortziko txikia eta zortziko zaharra

kantatzeko orduan eta orain ezagunak, eta neurri luzeko bertsoak kantatzeko erabili zituen doinu bereziak, sei, zazpi edo zortzi puntukoak, noizean behin oraingo bertsolarien ahoetan entzuten direnak. Bost dira lehen sailekoak eta zortzi bigarrenekoak, hauetatik bi metrika eta doinuaz arrotzak direnak. Elizanburuk kantatu zituenetik herriaren bihotz eta ahoetan ibili dira eta aldaketa nabarmenak izan dituzte. Baina doinu batek urteen zehar aldaketak izatea normala da, horrek adierazten baitu erabilia izan dela. Baina badago beste ohar bat hemen egin beharrekoa: Elizanburuk bere bertsoak kantatzeko idatzirik utzi zizkigun doinuak eta orain erabiltzen direnak, batzuetan, oso ezberdinak dira. Adibiderik nabarmena *Agur herriari* edo *Urrundik* poema kantatzeko doinua da: Elizanburuk paperean utzi zigunak eta orain erabiltzen dugun doinuak ez dute zerikusirik ez melodian ez erritmoan.

Banan-banan ikusiko ditugu Elizanburuk erabili zituen doinuak: Azalpenaren ordena kronologikoa da. Lehen seiak data daramate, Urruña eta Sarako Euskal Jaietan aurkeztuak izan ziren eta. Zazpigarrenaren data testuaren edukinagatik asma dezakeguna da. Zortzigarrena eta hamairugarrena ere data ezagunekoak dira Donostian eta Saran antolaturiko Jaietan sarituak izan ziren eta. Argitaratuak izan zireneko data emango diegu bederatzitik hamabi arte zenbatutakoei.

1. Gazte hiltzera doana

Elizanbururen kantuen kronologian hau dugu lehen. Urruñan 1860an antolaturiko Bestan, “Coplarien Guduan”, Harlouchi eman zioten “Lehen Garhait-saria: Makhila” *Gazte hilcera dohana* kantuagatik. Gudu berean “Aiphamen ona” izeneko saria eman zioten Elizanbururi, baina dakigunez, *Dantzaria* izenburuarekin aurkeztu zuen Elizanburu hau Leon zen, Jean Batisteren anaia. Aipatu bi kantuen testuak argitaratu zituen ohi zenez, Baionako Lamaignère-ren alargunak eta D’Abbadieren paperen artean gordetzen dira Pariseko Bibliothèque Nationale (PBN) delakoan. Baionako Euskal Erakustokian gordetzen den Elizanburuk idatzitako kaier edo eskuliburuan (EL) ere testu osoa ematen zaigu. Labaienek (LA) ere ematen digu testu hau, *Kantuz* (KAN), *Boga-Boga* (BB) eta *Kantu, Kanta, Kanthore* (KKK) bildumetan agertzen dena. Bertso edo kantu honen metrika zortziko txikiarena da, hots, 7/6A, 7/6A, 7/6A, 7/6A, nahiz eta Iparraldeko ohitura jarraituz zortzi lerroak lautuan idatzi, hau da, 13A, 13A, 13A, 13A.

Harlouch egilearen zalantza datorkigu berehala. *Le Courier de Bayonne* kazetan, 1860-9-12an, Duvoisinek argitaratu zuen idazlantxo batetan, zera irakurtzen da: “Irabazi duen kantuaren egilea J.B. Elizanburu da, armadako lotinenta, Léon Elizanbururen anaia”. Lehendik zen ezaguna Léon Elizanburu brigadierra, 1855ean saritua izan baitzen Urruñako “bes-

tetan". Baina Jean Batiste lehendabizi agertzen zaigu saritua 1860.eko gudu honetan.

Doinuari dagokionetik, Charles de Balsunce (1796-1872) bizkondearena da, eta hala frogatzen du Pascal Lamazouk bere *50 Chants Pyrénéens* bilduman (1869) non 44. zenbakiarekin agertzen den *Charmagarria* kantua aire edo doinu honekin Louis Diémer-ek egindako piano laguntzarekin. "Air basque de Belzunce" dio Lamazouk. Hurrengo urtean agertu zen Mauleko Jean-Dominique-Julian Sallaberry-ren *Chants Populaires du Pays Basque* (1870) bilduma ederra eta bertan ematen digu doinu hau *Ene izar matia* izenburpean. Baina ohar bat egiten dio Sallaberry-k Lamazou-ri: "M. Lamazou, dans ses *Chants Pyrénéens* qui viennent de paraître, a noté l'air de cette sérénade sur le rythme à quatre temps; c'est là une erreur qui saute aux yeux pour tous ceux qui ont entendu chanter cet air par un paysan basque: le rythme vrai est celui que j'ai adopté, le 3/4" Eta hamar urte lehenago konpas edo erritmo honekin eman zigun Jean Batiste Elizanburuk *Gazte hiltzera doana* kantua, hala agertzen baita bere eskuz idatziriko kaier edo eskuliburuan. Urtebete lehenago, 1859.eko Urruñako jaietara aurkeztu zuen G. Haroztegi (eta bigarren saria irabazi) *Etcheco chokhoa* kantuarekin. "Air de la sérénade de M. de Belzunce" doinuarekin kantatzeko zela zioen Haroztegi. Beraz, maiz erabilten zen doinua dirudi, eta ez horrenbeste oraingo bertsolarien artean, nahiz eta ederra izan benetan doinua. Rodney Gallop jaunak diosku (*Los Vascos*, Madrid, 1948, 116 orr.) bi bertsolarien lehia entzun zuela doinu honeki.

Baina benetan harritzen nau Etxemendik eta Lafittek argitaraturiko *Kantuz* bilduman beste doinu bat ematea (Ikus: 36. zenbakia, 69. orrialdean). Ez du Elizanburuk erabili zuenaren edertasuna, nahiz eta bi azken lerroetako doinua Jesus Guridik *Amaita* operan harmonizatua izan. Hemen ematen dudan doinua Elizanburuk erabili zuena da, lau lerrotan jarria, baina 7/6 silaben arteko etena markatuz zortziko txikia baita:

Ho - goi garren ur - te ra / a - ri naiz hurbiltzen
e - ta nere oi - ne -tan/ton - ba dut ikus - ten
ni zer-ta-ko mun -du -ra / e - to - rria nintzen
On - dikotz ez sor - tze -a /ne - retzat ho-be zen

2. Nere etxea (*Ikusten duzu goizean*)

Hau da, behar bada, Elizanbururi ospe handiena eman dion kantua, Euskal Herri osoan berehala hedatua izan baitzen. Urruñan 1861.ean egin ziren jaietan aurkeztu zuen, baina Pariseko Bibliothèque Nationale-an dauden paperetan ez dugu jai hauei dagozkien paperak aurkitu. Elizanburuk berak idatziniko eskuliburuan, ordea, testua eta doinua agertzen dira izenburu honekin: *Nere etxea edo Laboraria. Etxe zuria* izenez ere ezagutua da. Euskaltzaindiaren artxiboan gordetzen den *Chansons Basques* eskuskribuan, doinua ematen zaigu baina ez testua, izenburu honen pean: *Ikusten duçu goicean*, 52. zenbakian. Elizanbururen lana asko maite zuen Azkuek, *Euskalzale* aldizkarian (1899) eman zigun kantu hau eta gero *Los Vascos en la nación Argentina* (1916) liburuan ere argitaratu zuen. Nehor (Jean Barbier) eta Dominique Dufau kantu biltzaileek ere eman ziguten testua eta doinua pianoren laguntzarekin, eta Labaienek ere, nola ez, argitaratzen du kantu hau doinu eta guzti (Elizanbururen eskuliburutik faksimilatuz). Beste geroko bildumak ere bada-karte, hala nola KAN, BB, KKK, azken honek testua bakarrik ematen digularik. Urruñan 1862an antolatutako guduan “aiphamena” lortu zuen kantu honek.

Metrika aldetik berezia dugu bertso hau. Elizanburuk idatzi zuen lerroen egitura hau da: 8A, 8A, 8A, 10B, 8A, 8A, 8A. 8A. Beraz zazpi puntutako bertso berezia dugu, eta berezitasun horren eraginez kantutzat hartzen den poema da eta ez bertsogintzan erabiltekoa.

Azter dezagun doinu eder eta ezagun hau. Hedakuntza handia eman zion Elizanburuk kantu honi, baina doinuak lehendik emanak zituen hegadak Euskal Herriaren luze-zabalean. Saratarrak erabili orduko eza-guna zen gure herrian, iparralde eta hegoaldean. Madame Villéhéliok 1848-1850 urteren bitartean euskal herri kantuak biltzeari ekin zion, eta 1869an argitaratu zuen Baionan hautapena. Gero Jose Antonio Donostiak berriz argitaratu zuen bildumatxo hau: *Souvenir des Pyrénées. Recuerdo de las Pirineos*, Villéhélio andereak bildutako hamabi kantu emanek (BRSBAP, 1954. 309-337). Tartean dugu hau, biltzaileak *Zortziko* izena ematen diona. Baina baditu ezberdintasunak biltzaileak eta saratarrak erabilitako doinuak. Melodia hurbil dago batetik bestera, baina erritmoa ez da berdina: Villéhéliok 3/4 konpasean ematen digu eta Elizanburuk 2/4 konpasean idatzi eta kantatu zuela dirudi. Euskaltzaindiko artxiboan dagoen *Chansons Basques* eskuskribuan, Iparraldean idatzian, 3/4 konpasean agertzen da doinua, testurik gabe, baina ikusi dugunez, *Ikusten duçu goicean* du izenburua. Iparraldean argitara emandako *Kantuz* bildumak 2/4 konpasean ematen digu doinu hau, Elizanburuk bezala. Beraz Iparraldean ez dago argi zein den kantu honen erritmoa. Hegoaldera bagoaz, Euskaltzaindiak 1973-8-31an Donibanen egin zuen bileran, Louis Dassance-ren txosten bat irakurri zuen Jean Haritschelhar-ek, non esaten

zen Pierre Lafittek aurkitu zuela doinu hau “Horra nun den Urnieta” hitzekin hasten den bertso batetan. Jose Maria Etxeberria eta Juan Guimon musikariek argitaratu zuten Donostian (1898) *Ecos de Vasconia* kantua eta pianorako bilduma. Elizanbururen kantuak ezagutzen zituzten, noski, eta egile gabeko kantua ematen digute 65. zenbakiarekin: *iHernaniri! Urnietaco Doñuba*. Karlisten edo txapelgorrien gerratekoa da kantua-ren gaia eta Hernanik jasan zuen egoera larria kantatzen du. Baina karlistadako gertakizun bat kantatzeko “Urnietako doinu” bat erabiltzen bada, zaharragoa dela esan daiteke, beraz Elizanburuk herrian entzun zezakeena. Etxeberria eta Guimon jaunen bertsioa 3/4 konpasean idatzia da, Villéhélio eta Euskaltzaindiko eskuskribuak ematen diguten erritmo berbera. Baina hara non agertzen zaigun hirugarren erritmo edo konpas bat: 5/8 edo zortzikoarena, eta Etxeberria eta Guimon-en bilduman baino zaharrago batetan. Jose Antonio Santesteban-ek, 1862an hasita, *Colección de Aires Vascongados para canto y piano* kaleratu zuen Donostian. *Ay au penaren andia*, amodiozko kantua, ematen digu 60. zenbakiarekin. Hara non Villéhéliok “Zortziko” izenarekin bataiatzen zuen doinua, “zortziko” erritmoarekin transkribatu zuen Santestebanek garai berean. Harrezkero maiz erabilia izan da doinu hau. Charles Bordes-ek flauta eta laukoterako *Suite Basque* musikalanean erabili zuen, eta Aita Donostiak hiru ahotsetarako harmonizatua eman zigun *Larre gorrian* delako liburu-kian (35. zenbakia, 62-63 orr.) Era honetan eman zigun Elizanburuk bere kantua:

I - kusten du - zu - goi-ze - an
ar-gi-a has - ten de-ne-an
men- di-tto ba - ten gai-ne - an
e - txe ttiki - tto aitzin zu- ri bat
lau haitz haundi - ren ar -te - an
i - tu- rri-tto bat al-de - an
txakur zu-ri bat a-te - an
han bi-zi naiz ni ba-ke - an

3. Apexa eta lorea

Berriz datorkigu Elizanburu bertso-gintzako zortziko txikiarekin. Urruñako “Eliza-Besta”ko “Coplarien Guduan” 1862an, “Garhait” edo lehen saria irabazi zuen kantu honekin. Hala agertzen da PBN-ean dauden D’Abbadieren fondoko bertso-paper inprimatuetan. “M. Elissambururi emana” zela sari hori dio bertso-paperak, eta Leon anaia 1861.ean hil zenez Jean Batiste dugu irabazlea. Bertso-paper berean ikusten dugu 1862.eko guduan “aiphamenac” lortu zituztela Larralde, Guilbeau, Salaria, Darricarrère eta Martin Darroupe jaunek; eta hauekin batera egilearen izenik gabe aurkeztu ziren *Nere etchea* eta *Agur nere herria* kantuak. *Nere etxea* poemari dagokion aipamen hau egin dugu lehen eta gero izango dugu besteari egiteko parada. Baina *Apexa eta lorea* poemaz ari garenez, esan dezagun Elizanbururen eskuliburuan idatzia agertzen dela, eta *Revue des Basses Pyrénées et des Landes* delakoak argitaratu zuela lehendabizi 1883/1884 urteetako alean. Gero etorriko dira Labaienen argitarapena eta KAN eta KKK bildumetakoak.

Kantu honen metrika bertso-gintzako zortziko txikiarena da: 7/6A, 7/6A. 7/6A, 7/6A. Baina zortzi lerrotan eman beharrean, Iparraldeko idazkera errespetatuz lau lerrotan emango dut, etenak markatuz, hots, 13A, 13A, 13A, 13A.

Kantuaren doinuak badu zeresanik. Elizanburuk eskuliburuan idatzita utzi ziguna ematen dut nik hemen. Etxemendik eta Lafittek *Kantuz* bilduman argitaratua ez da berdina eta ene ustez ederragoa da lehena (Ikus KAN, 80. zenbakia, 135 orr.) Orduan (1946) eta orain ezaguna bada Elizanburuk idatzita utzi zigun doinua, zergatik eman ziguten KAN bildumaren prestatzaileek beste doinu hori? Nonbaiten entzuten zen bigarren aukera hori ematearren? Lafittek ezagutuko zuen Elizanbururen doinu propioa, 1941.urtetik zegoen eskuliburua Baionako Euskal Erakustokian eta. Dena den, bi doinuetatik Elizanburuk berak idatzi zuena jarri beharko dugu hemen:

Ne - gu - az pri - ma - de - ra / ze - ne - an ja - be - tu

sa - si baten he - gi - an / a - pe - xa zen sor - tu.

Le - ku be - re - an bait - zen / lo - re - a ger - ta tu,

gai - xo - ek el - gar zu - ten / bi - hotzez maita - tu

4. Agur herriari (*Urrundik*)

Elizanbururen eskuliburuan izenburu hau darama kantu honek: *Agur Herriari!* PBN-ean gordetzen den “Urruñaco Eliza-Besta” izeneko bertso-paperetan (1862) “aiphamena” ematen diote *Agur nere herria* daramanari. Bat izango direlakoan nago eta horrek adierazten digu Garhait-saria eta bi aipamen lortu zituela Elizanburuk 1862.eko jaietan Urruñan. Hogeita hamalau urte zituen gure olerkariak eta urte hau izan daiteke saratarren unerik gailenena. *Urrundik ikusten dut* hitzekin ere ezagutua den kantu hau *RBPL* delako aldizkariak kaleratu zuen 1883/1884 urteetako alean, eta 1887 urtean *Euskal-Erriak* (Ikus XVI, 366 orr.) Testu osoa ematen du azken aldizkariak, euskarazkoa “Piarres Adame, Saratarrak” sinatzen duelarik; baina frantses itzulpena ere badakar, J.B. Elizanburuk sinatua. Labaienek ere ematen digu kantu hau, Elizanbururen eskuliburutik doinua kopia-tuz. Berriz Etxemendik eta Lafittek harriduran jartzen gaituzte *Kantuz* bilduman (Ikus 11. zenbakia, 24. orr.): Haaluchi (Darrupe) (sic) egilea dela diote, inon ikusi ez dugun datua, eta doinua 5/8 erritmoan ematen digute.

Hemen ere bertsogintzako zortziko txikia darabil Elizanburuk. Ikus dezakegunez, kantugintzako lehen hiru urteetan bertsolaritzari loturik zebilen Elizanburu, lau kantutik hiru zortziko txikian idazten baititu. Gero etorriko dira doinu bereziak eta zortziko zaharrak. Beraz *Agur herriari* kantuak 7/6A, 7/6A, 7/6A, 7/6A egitura du, nahiz eta lehengoe-tan bezala Iparraldeko ohitura errespetatu hemen.

Doinua dela eta bi dira poema hau kantatzeko erabiltzen direnak. Elizanburuk bere eskuliburuan idatzi zuena 3/4 konpasean dago eta melodia aldetik ez du zerikusirik besterekin, hots, 5/8 edo zortziko erritmoan kantatzen denarenekin. Elizanburuk erabili zuen doinua bizirik zegoen Saran 1912an Aita Donostiak bertan bildu zuenean. Doinu hau, harmonizaturik, *Goizean goiz* liburukian agertzen da. Bigarren doinua, zortziko eritmokoa, Baztanen bildu zuen 1916an Aita Donostiak berak, eta *Larre gorrian* liburukian harmonizaturik agertzen da. Esan behar da bi liburuki hauek Aita Erriezukoak argitaratu zituela, Aita Donostiaren lanekin. Hemen ematen dudan doinua Elizanburuk bere eskuliburuan kantu honi jarri ziona da:

Urrundik i-kus - ten dut / ikusten mendi - a -

zeinaren gi-be - le - an / baitut nik he-rr-i- a



5. Maria

Saran antolatu ziren 1866.eko Euskal Jaiak edo “Bestak” eta beti bezala “Berxutako Gudua” aipatzen da Lamaignère alargunak inprimatu zituen bertso-paperetan. Izenik gabe aurkeztu omen zuen Elizanburuk poematxo hau eta *Le Courier de Bayonne* kazetak (1886.8.31) galdetzen zion egile ezezagunari bere burua ager zezala. Eta agertu zuen nonbait Lamaignèrek argitaraturiko paperetan honako hau azaltzen bait da: “Garhait-saria J.B. Elissamburu, Emperadorearen goardian, lotinent denari kantu hunentzat: MARIA. Airea: Ikhazketako mandoarena”. Beraz, Teniente izendapena lortu orduko da poematxo hau. Manterolak *Cancinero Basco* delako bilduman (1880, 212-219 orr.) eman zizkigun, hasierako irazkin batekin, euskarazko testua, Elizanburuk berak egindako frantsesezko itzulpena eta Manterolaren gaztelaniazkoa. Gero, 1885ean, *Revue des Basses Pyrénées et Landes* aldizkariak argitaratu zuen (II, 44-46 orr.) eta EE aldizkariak 1906an (37-38 orr.). Labaienek ere ematen digu, nola ez, testua. Beraz, zabalkunde handia izan duen kantua izan da hau.

Metrikari dagokionetik, sei puntuko bertsoa dugu eta egitura bereziko: 7/5A, 7/5A, 5A, 7/5A, 5A, 7/5A. Baina ezaguna zen orduan bertsoaren egitura hau Leon Elizanburuk ere erabili zuen *Emazte edalea* jartzeko 1855ean Urruñan irabazi zuen kantuan.

Doinua ere ezaguna zen. Leon Elizanburuk, aipatu bertsoa kantatzeko airea honako hau zela zioen: “Hau da ikhasketaco (sic) mandoaren traça”. Beraz, 1855 urtea baino lehen erabilitako doinua dugu hau. Jean Dominique Julian Sallaberry-ren *Chants Populaires de Pays Basque* bilduman agertzen da doinua (1870) pianoaren laguntzarekin (84-85 orr.). Alphonse Dotterer zen laguntza hauek Sallaberry-rentzat egin zituena “jeune musicien d’avenir, ancien élève du Conservatoire de Paris” Maulleko biltzaileak aitortzen duenez. Jatorrizko bertso honen 20 ahapaldi ematen dizkigu Sallaberry-k, frantsesezko itzulpenarekin, lehena hala delarik:

Hauche da ikhazketako mandoaren traza:
 Lephoa mehe du eta ilia latza,
 Itchura gaitza;
 Bastape guzitikan zauriak balsa,
 Hauche da salsa!
 Kristaurik ez daiteke aldetik phasa.

“Nafartar eta Basa-Nabartarrez” ematen digula testua dio Sallaberry-k. Manterolak ere eman zigun doinu hau bere *Cancionero Basco* delakoan pianoren laguntzarekin (Serie III, Apéndice de música, IX-XI orr.) 1880. urtean. Elizanbururen eskuliburuan 3/8 konpasarekin agertzen da kantu hau, Sallaberry-k ematen digun konpas bereberean; Mante-rolak ostera 6/8 konpasean ematen digu. Euskaltzaindiaren artxiboan dagoen *Chansons Basques* eskuskribuan, non doinua bakarrik ematen zaigun, 3/4 konpasean agertzen da. Hara hemen kantu honen doinua:

Ber - tzek e - rran baitu - te / nik baino le - hen
 hai - nitz a - di - tuz de - la / hai - nitz ikas - ten
 us - te dut on den
 nik da - ki - tan beza - la / gu - zi - ek a - rren
 ja - kin deza - ten
 Be - raz ai - pa de - za - gun / Ma - ri - a nor den
 Be - raz ai - pa de - za - gun / Ma - ri - a nor den.

6. Txori berriketaria (*Sorlekua*)

Doiharçabal izeneko sinadurarekin aurkeztu zen poema hau 1869an Sarako Bertso gduetara. Baina *Le Courier de Bayonne* kazetak zioenez (1869-9-5) idazlan hau eta beste bi “berantegi iritsi dira, bainan heldu den urteko sariketara aurkezten ahal dira”. Prusiarekin gudua hasia zen eta Sedaneko hondamena gertatu ondoren (1870, irailak 1) ez ziren hil horretan ospatzen ziren Euskal Jaiak antolatu. Hurrengo urterako geratu ziren ba ordurarte aurkeztutako lanak eta 1871ean antolatu ziren Sarako bestetan *Txori berriketariak* irabazi zuen saria. PBN-ean dauden D’Abbadieren paperetan Doiharçabal-ek sinatutako originala dago eta beste esku batek idatzia, egilearen izenaren ondoan, “St. Jean de Luz” irakurtzen

da. Egilearen izen hori izenordea zela esaten zuen Julien Vinson-ek *Revue de Linguistique* delakoan (1872) eta Duvoisin ere iritzi berdinekoa zen. *Euskal-Erria* aldizkariak argitaratu zuen poema honen testua 1883.eko alean (442 orr.): *Chori berriketaria. M. Doyharçabal Donibane Lohizunekoak egina* eta frantsesezko itzulpena (466 orr.). Orrialdepeko ohar batean zera dio: "... M. Doyharzabal, bajo el que se encubre, según nuestras noticias, una persona muy conocida en San Juan de Luz". Izenik ez badu aipatzen ere, Martin Guilbeau kantu honen egilea zelakoan zegoen EE-ren zuzendaria. Egia esan, Doyharçabal omen zen Guilbeau-ren bigarren deitura, baina 1883an ospetsua bazen ere, 1878-1888 urteetan Donibane auzapeza izan zelarik, 1869an poema aurkeztu zuenean ez zen hain ezagutua. Eta zalantza guztiak Guilbeau berak argitzen dizkigu 1897an, Saran Elizanbururi "Association Basque" zelakoak omenaldia antolatu zionean. *Revue de Linguistique* aldizkarian (1898, 193-223 orr.) aitortzen du Jean Batiste Elizanburu izan zela *Xori berriketariaren* egilea. Elizanbururen eskuliburuan berea delakoan agertzen da kantu hau eta geroztik egiletzat baieztatzen dute Labaienek, eta KAN eta KKK bildumak.

Metrikaren aldetik, berezia dugu poematxo hau: 8/8A, 8/8A, 9/8A, 9/8A, doinuaren eraginez, behar bada, eratua. Herriko doinuak erabilten zituela Elizanburuk esan dugu, baina oraingoan, behar bada, berak asma-tua dela esan dezakegu. Orduko kantu bildumetan ez dut doinu hau ikusten eta bertsolariek ere ez zuten kantatzen bertsosaren egitura bereziagatik. Orain ere bertsolarien artean gutxi entzuten den doinua da, agurrak eta kartzelako gaiak kantatzeko ez bada. Esate baterako 1962.eko Bertsolarien Txapelketan agurrak kantatzeko erabili zuten doinu hau Azpillagak Idiazabalen eta Amurizak Durangon. Euskaltzaindiko artxi-boan dagoen *Chansons Basques* eskuskribuan, Azkueren eskuz idatzia agertzen da, 110.zenbakia daraman doinuan, "Elissamburu". Gure egunetan hain ezaguna den doinu hau hala agertzen da Elizanbururen eskuliburuan:

Sorleku-a utzi nuen / ondikotz!hala beha -rrez

Jaingo o - na urri-kalduz / beti-ko nere nigarrez.

Primaderan hasi ardu - ko / arbolak estaltzen lorez

Txaritto bat helduda beti / nere herritik hegalez.

7. Biba Frantzia!

Egia esan, *Biba Francia* idatzi zuen elizanburuk eskuliburuan kantu honi izenburua jarri zionean. *Almanakak* argitaratu zuen 1891.eko alean eta geroztik Labaien izan da bakarra kantu hau Elizanbururi atxeki diona. Ez zen inon aurkeztua izan eta datarik ere ez darama, baina gaiak argi diosku 1870ean hasi zen gerrako ondorena dela. “Urthe guti du...” dio Elizanburuk bigarren ahapaldiaren hasieran eta horrek adierazten digu 1873 edo 1874 urtean egina izan daitekeela.

Metrika aldetik dantzatzeko “jota”ren neurrikoa da: 10A 10A / 10A 8A/ 10A 10A / 10A 8A. Eta argi ikusten da azken mendean hain ezaguna den *Andre Madalen* kantuaren doinua daramala. Honekin apur-tzen du Elizanburuk orain arte kantueta erabili duen lasaitasuna eta jasandakoak gainditzeko duen itxaropen bizia agertu nahi digu. Baina doinua idatzikeran erratu zela esango nuke, 3/4 konpasean idatzi behar-rean 3/8 edo 3/6 konpasetan hobe legokeelako, erritmoa aldatzen bait dute, bigarren eta laugarren lerroetako azken konpasek. Dena den, Eli-zanburuk idatzi zuen era berean ematen dut doinua:

No-la guk erran egun Frantzia gu hire hauzren a-legrantzia?
 a-ma gi-ni-an hi-tan e-ri-a E - xai ek hiltzat notzia.
 Hek xur-ga -turik Odol gu - zi-a apal hindagon ez e -roria
 xuti -tu bai haiz o-rai he-rr-i-a Bi - ba bai Biba Frantzia

8. Lehen eta orai

Aspaldian zegoen Elizanburu Euskal Jaietara ezer aurkeztu gabe. Eta D'Abbadiek 1879an Elizondon antolatutako jaietara ere ez zuen kanturik aurkeztu. Baina urte berean Jose Manterola adiskideak Donos-tian eratu zituen Lore Jokoak eta han agertu zen gure olerkaria gizarte arazoetaz asmatuiko poematxo batekin: *Lehen eta orai*. Hitz lau-zko idazlan bat ere aurkeztu zuen, hots, *Piarres Adame* elaberriaren zati bat. *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratu zen aipatu poema 1885ean (217-219 orr.) eta Piarres Adame, Saratarrak sinatzen zuen. Labaienek ere ematen digu doinu eta gutzi.

Zortzi puntutakoa dugu Elizanburuk kantatzen digun hau, egitura honetakoa: 7/5A, 7/5A, 7/6A, 7/6A, 6A, 6A, 6A, 7/5A. Ez dira asko bertso mota hau eta dagokion doinua kantatzen duten bertsolariak, zaila baita bat batean egitura horrekin bertsoa asmatzea. Baina doinu ederragorik aurkitzea ez da erraza. Ezaguna zen Elizanburuk erabili zuenean, bederatzi urte lehenago (1870) argitaratutako liburu batean agertzen baita, hots, J.D.J. Sallaberry-k kaleratu zuen *Chants Populaires du Pays Basque* (261-262 orr.), zazpi puntuko bertso hau ematen digularik: *Mila zortzi ehun hemeretzi*an hitzekin hasten dena. Joanes Otxalde bidaitarrarena dela diote Etxemendi eta Lafittek *Kantuz* bilduman, bigarren ahapaldian agertzen baita “Bidarraitarra nuzu” aitortpena. Bi hitz horiekin ezagutzen dute bertsolariak doinu hau. Beraz, Otxalderen (1814-1897) zazpi puntutako bertsoa zortzi puntutakora garatu zuen Elizanburuk, eta ehun urte geroago, 1982an Euskaltzaindiak antolatutako Bertsolari Txapelketan, bederatzi puntutako bertsoa egokitu zuen Xabier Amurizak, “*Txantxangorria*”, Donostiako finalean, egitura honekin kantatu zuenean: 7/6A, 7/5A, 7/6A, 7/6A, 6A, 6A, 6A, 6A, 7/5A. “Ahaire zahar huntan” kantatu zuen Amurizak txapela eman zion bertso eder hau (Ikus: Euskaltzaindia, *Bertsolari Txapelketa*. 1982. Bilbo, 1983, 258-259 orr.).

I - zan nauk Ipa - rre-ra he - goal-de-tik

I - guz-ki-ko parte ra mende -ba-le-tik.

E - ta diat i-ku - si gu- zi-en gainetik

I - no-zentzi-a hai-nitz gi-zonen parte-tik

a - bi - la hargatik

duk e-gun-dai-no-tik

e - gin ga-be de-nik

e - der-ki-e-na bi zi bertzen la-ne-tik

9. Aingeru bati

Ez dakigu noiz idatzi zuen Elizanburuk kantu hau. Dakigun bakarra da *Euskal-Erria* aldizkariak eman zigula 1880an (59 eta hurrengo orr.) Euskal testutik aparte, Manterolak egin zuen gaztelaniazko itzulpena eta Elizanburuk berak egindako frantseskoa azaltzen zaizkigu Donostiako aldizkari honetan. Elizanbururen eskuliburuan agertzen den doinua ere ematen digu EE-k, Jose Maria Etxeberria musikagileak gehitutako piano laguntzarekin. Gero Labaienek, KAN eta KKK kantu bildumek ere ematen digute kantu hau.

Olerki honen laudoriak egiten ditu Jose Manterolak bere aldizkarian eransten dizkion irazkinetan. Gauza bera egiten du Karmelo Etxegaraiak "Escritores euskaros. Elizaburu" artikuluan (Ikus *De mi Pais. Miscelanea histórica y literaria*. San Sebastián, 1901, 238-240 orr.) Poema honetatik azken bertsoaren zati hau ematen digu eredutzat Etxegarai jaunak:

... Oi! behautzu
lohirat eror, zuk, aingerua!
Ez beha lurra, beha zazu
lurra ihesi beha zerua!

Hugo Schuchardt-ek ere bertsoaren zati berau ematen digu "beha" hitzaren esanahia aztertzeko (Ikus: *Zur kenntnis des Baskischen von Sara (Labourd)*, Berlin, 1922) "Beha" hori "kontuz!" edo "begira!" izan daitekeela diosku Grazeko irakasleak. Eta Oihenarten beste adibide bat jartzen digu: "Beha lehenik, mintza azkenik" non argi dagoen "beha" horrek adierazi nahi duena. Sarako euskararen ikerketa hau prestatzeko 1887an egon zen herri honetan Schuchardt jauna, nahiz eta askoz beranduago ikerlana argitaratu.

Metrikaren aldetik arrotza dela esan dezakegu: 9A, 10B, 9A, 10B, 9C, 9C, 9D, 10E, 9D, 10E, 8E, 12E. Eta hala izan behar doinu arrotz bati lotua dagoelako poema. Adolphe Adam (1803-1856) musikari frantsesak musikatutako *Si j'étais roi* operatik hartua da poematxo honen doinua (Lehen ekitaldia, 2. erromantza). Parisen estreinatu zen opera hau 1852an eta zabalkunde handia izan zuenez, edozein tokitan entzun zezakeen Elizanburuk opera osoa edo erromantza bera. Edo, Parisen entzungo zuen 1870 urtean hiriburu honetan egon zenean? Ez dakit. Baina musikan aditua zela Elizanburu baiezia dezakegu. Hara hemen kantu hau:

Maite dut e - ta e - zin erran
aingeru ba - ti maite du - ta - la

zeru garbi -ak a - rra - xe-an
 i-za-rra mai-te duen beza - la.
 Zer! Ez da ba - da zo - ri-gai -tza
 Min-tza-tu na - hi e - zin min -tza.
 Non nahi nai -zen go - go - an dut
 gauaz e-gu - naz ain-ge-ru ho - ri.
 U-rrundik fran-ko xe - de bat dut
 Bainan hurbil - dik e-zin a -tre - bi
 Hur - bil - dik e - zin a -tre - bi.
 Hur -bildu e -ta ez nai -te -ke a -tre - bi

10. Eskuara eta eskualdunak (*Arbasoak*)

Poemaren hasieran ematen digu Elizanburuk berak idazlanaren data: “Mila bat zortzi ehun eta lauetan hogoiean” (1880). Aurreko urtean antolatu zituen D’Abbadiek Euskal Jaiak Elizondon, eta saria lortu zuen poema *Ama euskeriari azken agurra* izan zen, Felipe Arrese Beitia bizkaitarrarena. Euskal Herri oso baten kontzientzia sortu zitzaion orduan Elizanbururi: “Guziak bat, mendien bi aldetan” kantatzen du orain, euskaldun guziok herri bakar bat osotzen dugula kantatuz. Betidanik datorkigu batasun hau eta horregatik *Arbasoak* izenarekin ere ezagutzen da kantu hau.

Piarres Adamek sinatuta agertu zen poema hau *Euskal-Erria* aldizkarian, doinu eta guzti, 1882an (42-46 orr.) gaztelaniara eta frantsesera ere itzulita. Iruñeko *Revista Euskara*-k ere argitaratu zuen urte berean (V, 154-157 orr.). Bizkaierara moldatu zuen Azkuek *Euskalzale* aldizkarian (1897, I, 134-135 orr.). Gero. Atharratzeko Albert Constantin-en ahotik hartuta *Cancionero Popular Vasco* delakoan eman zigun Azkuek *Basoilarrak* titulupean (I Tomoa, 18. kantua). Aita Donostiak "Nehor" (Jean Barbier) —en bildumatik hartu zuen eta *Gure Herrian* argitaratu zuen (1923) gero Erriezuko Jorgek prestaturiko *Larre gorrian* era ematen zaigularik Aita Donostiaren harmonizazioa (21 orr.). Erriezuko Aita berak ematen digu kantu hau *Flor de canciones populares vascas* liburuan (Buenos Aires, 1948, 196-199 orr.). Labaienek ere ematen digu kantu hau, baita KAN eta KKK bildumak ere. Beraz, Elizanburuk eskuliburuan ematen digun kantu hau izan daiteke gehien geroztik argitaratua izan dena.

Bertso zaharren metrika du kantu honek: 9/7A, 9/7A, 9/7A, 9/7A. Eta doinua ere zaharra dela diosku Elizanburuk lehen bertsoan: "Bertso berri hauk eman dire aire zahar batean". Hau dugu doinu zahar hori eta Elizanbururen lehen bertsoa:

Mila bat zortzi e-hun e- ta lau-etan hogoie - an

bertsu berri hauk eman dire aire zahar bate - an

Gure ai-ta - so kantabre-ak lo baitaude lurpe - an

ez o-te di-re atzarri-ko aire hau aditze - an

11. Zapataina (Gizon zuhurra)

Kantu honen data ere ez da ezaguna. Dakiguna da *Euskal-Erriak* argitaratu zuela 1882 urtean (VI, 171-173 orr.) Manterolaren itzulpen batekin. Labaienek musikarekin argitaratzen du kantu hau eta KKK bildumak, doinu gabe, eta beste izenburu batekin: *Jakintsunen arabera*, hau bait da bertsoen hasiera.

Bertsoaren egitura zortziko zaharrarena da: 8/7A, 8/7A, 8/7A, 8/7A. Eta egitura horri dagokion doinua ere zaharra izan behar halabeharrez.

J. D. J. Sallaberry-k ematen digu kantu hau maiz aipatu dugun liburuan (157 orr.), baina Zuberoako testu batekin: *Chorittua nurat hua?*, oso ezaguna, bestalde, Euskal Herri osoan.

Doinu honen lehendabiziko berri Chahok eman zigun 1835ean (Paris, *France Littéraire*, XIX, 319 orr.) eta hurrengo urtean *Voyage en Navarre* liburuan (1836) argitaratu zuen bigarren aldiz (39 orr.) Doinu eder hau *Mendi Mendiyan* opera musikatu zuenean (1910) erabili zuen Jose Maria Usandizagak, eta gero Aita Donostiak (1952).

Esan dezagun, Elizanburuk etenekin eman zigula aspaldidanik eza-gutzen zen doinua eta melodia aldatuz. Ene ustez askoz ere ederragoa da Chahok eta Sallaberry-k bildu zutena. Baina hemen Elizanburuk idatzirik utzi ziguna emango dugu:

Ja-kintsu nen a - ra-be-ra nor-be-rak du be- re - a

mundu-ra sor -tu de-ne-an e -ka-rri den zorte - a

Jainko-ak na-hi be -za-la nik maite dut ne- re - a

na-hiz ez den jen-den us-tez zo-ri -o-nez be-te - a

12. Lau andren besta (*Amex bat*)

Kantu hau 1882 baino lehen egina zela badakigu, *Almanakak* argita-ratu bait zuen data horretan. Gero *Euskal-Erriak* eman zigun 1897an (19-21 orr.) Martin Guilbeauk Saran egin zuen hitzaldian (1897-9-13) Elizanbururena dela kantu hau diosku. Zein den kantu honen jatorrizko testua zalantzan jarri da, baina Elizanbururen eskuliburua ikusi ondoren ez dago inolako duda-mudarik. Hau da berak ematen digun testua:

Herriko besta bigarrenean (beraz: 5/5 silaba)

Chansons Basques delako eskuskribuan egitura berbera agertzen da hitz bat aldatuz:

Eliça phesta bigarrenian (beraz: 5/5 silaba)

Baina *Kantuz* bilduman silaba bat gehitu zaio, nota beltzarekin bi kortxea eginaz:

Irgan besta biharamunean (beraz: 5/6 silaba)

Bilduma horretatik harturik, hasiera hau ematen dio kantuari Aña-mendiren *Entziklopediak*, eta halaxe agertzen da *Boga Boga* bilduman ere. Baina ulertu ezinezkoa da Labaienek ematen digun testua:

Igan besta biharamunean (beraz: 4/6 silaba)

hamar silaba guztira izan arren erritmo guztia apurtzen duelako.

Egitura hau dauka bertso berezi honek: 10A, 10A, 20A, 11A, 11A. Elizanburuk ematen digun doinua hau da:

Herri-ko besta biga -rre-ne-an

berek da-ki-ten txoko ba- tean

lau andre bat a - lar-gu - na hirur mutxurdin jarri -ak itza-lean

harri zabal bat belauen gaine-an

a-ri dire,a-ri di-re tru-ke-an

13. Maite zaitut!

Elizanbururen azken kantua dugu hau, eskuliburuan ere azken tokian idatzirik agertzen delarik. Data hau jarri zion: "1.^{er} Octobre 1885". Gainera Sarako Euskal Bestetara aurkeztu zuen 1885ean, Eyheraburu izenordearekin. Duvoisin-ek argitu zigunez, Elizanbururena zen izenorde hori. *Revue des Basses Pyrénées et Landes* argitaratu zuen poema hau 1886an eta *Euskal-Erriak* 1893an (402 orr.). Labaienen liburuan ere agertzen da argitaratua, doinurik gabe.

Zortziko zaharraren egitura dauka metrika aldetik, baina puntuak edo errimak ez dira lau, zortzi baizik: 8A, 7B, 8A, 7B, 8C, 7D, 8C, 7D. Zortziko zaharra kantatzeko doinua erabili zezakeen Elizanburuk, baina ez zuen halakorik egin, hemen ere doinu arrotzaz baliaturik. Egileak

berak esaten digu zein den erabili behar den airea: “La Rose de Martha”. Ikusi dugunez, *Aingeru bati* kantatzeko opera baten doinua erabili zuen eta hemen ere gauza berbera egiten du. Beraz lehen izan dugun susmoa baieztatzen da: Elizanburuk operak edo zatiak entzuten zituela (Parisen edo beste nonbaiten) eta musikan aditua zela, musika lirikoan behintzat.

Maite zaitut! kantatzeko darabilen doinua *Martha* operatik hartutakoa da, “Udako azken larrosa” izena daraman erromantza, hain zuzen. Opera honen musikagilea Friedrich Flotow (1812-1883) zen, Vienan 1847an musikalan hori estreinatu zuena eta Parisen 1858.eko azaroaren 25ean Adelina Patti sopranoak entzutetsua egin zuen doinu hau Irlandako herri doinua omen zen. Eta hala baieztatzen digu J.L. Hatton eta J.L. Molloy jaunek argitara emandako *The Songs of Ireland* liburuak (London, d.g. 22 orr.) non agertzen den *The last Rose of Summer* Thomas Moore-ren (1779-1852) olerkia, herriko *The Groves of Blarney* doinuari egokitua. Beraz Flotow musikagileak *Martha* operarako hartu zuen Irlandako herri doinua hala erabili zuen Elizanburuk euskal olerkia kantatzeko:

Zein den e-der a - rra- xe - an

izar ar te garbia- a

i- pa - rre- tik a - ger- tze- an

mari - ñe - len argi - a

Bai handiz - ki e- der da - go

ze- ru zo - la han- di - a

zu mi - le - tan e- de - rra- go

ne- re mai - te Ma- ri - a

III. ZALANTZAZKO DOINUAK

Antonio Maria Labaien jaunaren lanak aipatu ditugu eta hauen ondorioz beste idazle batzuk Jean Batiste Elizanbururi egotzi dizkioten kantuak, dudarik gabe saratarrarenak ez direnak. Zortzi dira guztira bizi izan ziren beste egile batzuenak: hiru Leon Elizanburu anaiarenak, beste hiru Joannes Berjes-enak, bat Joannategi/Ithurbide bikotearena eta azken bat Darroupe-Harluzek Ameriketara egindakoa. Labaienek ematen dizkigun hogeita hiru kantuen errolda betetzeko bi falta zaizkigu, ikerketa sakonagoak egin arte zalantzan jartzen ditugunak.

1. Tan tan tan tan rapetaplan

Urruñako bestetan aurkeztua izan zen kantu hau 1858an. Dantzarako kantu bat da, Azkuek kadera edo katadera dantza sailean sartzen duena. Bi doinu ezberdin ezagutzen ditugu bertso berezi hauek kantatzeko. Bata, *Chansons Basques* eskuskribuan titulu honekin agertzen dena: *Ran plan plan plan rapetaplan, arçain çaharra tabernan* (43 zenb.) Bigarrena Etxemendik eta Lafittek *Kantuz* bilduman ematen digutena (99 zenb.) Azken bilduma honetan Elizanbururena dela diote, baina bi anaie-tatik zeinena da? Kantuaren gaia ikusirik, ardoa noski, hiru urte lehenago *Emazte edalea* idatzi zuena esango nuke izan zela honen egilea. Dena den, zalantzan utzi behar dugu oraingoz dantzarako kantu honen egilearen izena.

2. Solferinoko itsua

Italiako Solferino herrian 1859an izandako batailan itsu geratu omen zen kantu honen egilea. Eta Sarako bestetan, 1864ean, aurkeztu zuen poema A. Salaberry izeneko batek. Bertsoaren egitura hau da: 10, 8A, 10, 8A (bis). Manterolak, *Cancionero Basco* delakoan (II. tomo, 1878ko maiatza, 11-19 orr.) *Zolferinoko ixua!* tituluarekin ematen digu testua, euskaraz eta gaztelaniaz; bertso hauek kantatzeko *Bard arraxean arnaxetarik* airea zela erabili behar zena diosku Manterolak eta doinu hau ez zuela ezagutzen. Baina lehenagotik zegoen idatzia doinu hau, ikusiko dugunez. *Chansons Basques* delako eskuskribuan, 34. zenbakian, *Barda arraxian* doinua ematen zaigu, argibide gisa alboan zera irakurtzen delarik: “Gaiaz eder da argizaria (Sall. p. 269)” Eta J.D.J. Sallaberry-ren kantutegira jotzen badugu (1870) aipatu orrialdean aurkitzen da doinu zahar hori. Beraz, J.D.J. Sallaberry-k (beste testu batekin), *Chansons Basques* bildumak (testurik gabe) eta *Kantuz* bildumak (Solferinoko itsua kantatzeko) ematen dizkiguten doinuak antzerakoak dira.

Etxemendik eta Lafittek prestaturiko azken bilduma honetan, Labaie-
nek baino lehenago, Elizanbururena dela kantua hau esaten zaigu. Eta
beste batzuren iritzia ere berbera da. Baina J.S.M. (Juan San Martinek,
noski) Elizanbururena ez dela dio (*BRSBAP*, 1970, IV, 522 orr.) argudioa
honako hau delarik: doinua, aleman kutsukoa izanez gain, ez dela Eli-
zanburuk erabilitakoen antzerakoa. Ez dakit non hartzen dion Juan San
Martin adiskideak aleman usain hori kantua honi, eta hala balitz ere, ez
da Elizanbururi egiletasuna kentzeko arrazoa, beste doinu arrotzak ere,
ikusi dugunez, erabili zituen eta. Beste arrazoi sendoago bat emango
nuke nik kantua hau Elizanbururena ez dela frogatzeko: laugarren ber-
tsoan zera kantatzen du itsuak:

Ene amaren begi samurrak
betiko zaizkit estali.

Beraz, itsutasunagatik ezin zuen egileak bizirik omen zen ama ikusi.
Eta Jean Batiste Elizanbururen ama 29 urte lehenago hilda zegoen,
1835ean, ikusi dugunez. Dena den, ez dut uste itxita geratzen denik
ikerketa hau eta zalantza uzten dut egiletasuna.

Amaitzeko esan behar dut idatzirik eman ditudala Elizanbururen
zalantza gabeko hamairu doinuak. Baina entzun nahi dituenak diskoan
aurkituko ditu 1, 2, 3, 4, 5, 6, 8, 10, 11 eta 12 zenbakiekin pentagrametan
eman ditudanak.